



NERE LAGUN MAITEOK!

(SANTXO PANZA'REN ESKUTITZA)

P. BERRONDO

Baiki, baiki. Aspalditik zaituztet ezagun; ezagun eta lagun. Nere izenekoak ibilliak bait-dira or zuen artean. Ara or Santxoenea deritzan kalea eta ortik bertan Antxo Pasaia. Ez duzute, bear bada, nere odolekoak izan naiko; baiña izenak ba duala bere izana ere, eta gaitezen lagun.

Askotan esan oi zidan Don Kijote nere nagusiak, isillik egoten ikasteko eta zer ta nola ta noiz mintzatu, ongi ikusteko. Baiña, leengo lepotik nere burua, isilik eziñ egon; barrindik gora igotzen zaizkidan esan-naiak mintzatu gabe eziñ; leertu-ere egingo litzaidake noski nere zintzurra, bere betean gaiñezka. Alakoxea jaio, alakoxea izan eta alakoxea nai-ere noski. Izan ere, atsegin gozoagorik bai al da-ba, nagusia bere maite-miñetan antxe ta antxe ari dan artean, kidekoren batekin gure gauzetaz itz-aspertu on bat egitea baiño.

Erriko festak omen dituzute. Zalea izana naiz ni ere. Ez dut uste zaizkidanik aako Kamatzo'ren eztaiak eta duke-dukesezin batera egindako eizi-ibilli aiek. Baiña, egumotxak, agitz motxak, izaten ziran nere festa-egunak; bidez-bide abiatu bear bereala eta basoz-baso joan bear, borondate oneko artzairen bat noiz baiño noiz aurkituko. Ala esan zidan bein batean nagusiak, nere jateko ixira ikusirik:

– Jan zak motell eta ase adi; i ortarako jaioa aiz-ta; baiña ni, maite-ametsetan egoteko jaioa nauk ni!

Motxak, agitz motxak, izaten ziran nere festa-egunak. Ne-kea, geien-bat, bizi-lege.

Bero ezik zital ere ba omen zabilzate aspaldi ontan zuen erriko okerrak zuzendu eta alargunak babestu eta neskatxuak zaitu nairik. Ala dira berriak. Ez naiz nere buruari azka asiko (egitazko Zerbantes'ek dion bezela) baiña gogoan ditut zenbait gauzatxo; gobernadore ere izan bait-nintzan; amaika gauza ikusi eta ikasi huan egun gutxiatan. Gogoan ditut nolako aolku



jakintsuak eman zizkidan nagusiak, nere gobernaritzan asi-aurreko bezpera gauean:

– Lenen-lenengo, Jainkoaren beldur izan! Ortik bait-zetorrek egiazko jakinduria ta zentzu ona; eta zentzu oneko jakintua izanik, aisa egingo dituk aurrerako guziak.

– Ire burua ongi ezagutu bear duk, au duk bigarrena. Ez uste-ametsetan arrotu ta berotu...

Eta ala, ainbeste aolku, bata bestearen ondoan. Ontan bildu litezkenak geienak:

– Nori berea, zuzen-bidea!

Gogo onez eta asmo garbiz joan nintzan nere Baratari artara. Bai ango gauzak zuzentzen eta erabakitzen asi ere. Zuzen-bidea ta erriko txukuna ta bizi-gaien erosoia bait-dira biotz-biotzetik jendeak desira dituanak. Oietxek!

Gogoan dut, beñ-ola, gizaseme bat, tratalaria bera, eta emakume bat, matxarda xamarra noski, neregana auzitan etorri ziranean gertatua. Beren esateko guziak esaten utzi nien eta ain guzizkoa ez zala antz-eman nion emakumeari; onela erabaki nuan aiekikoa:

– Aizu emakume, gizaseme onen diru-poltsa ar zazu eta zoaz pake onean.

Baiña gizasemeari gero:

– Aizu, zoaz aren ondoren eta ken zaiozu dirua. Zurea da-ta. Eta atozte gero neregana.

Esan ta egin. Joan zan emakumea, aserre-itxurak egiñaz baiña pozik; eta bai tratalaria ere aren ondoren, nik agindu nion bezela. Laster ziran nere aurrean berriro. Masailak gorri eta adatsa arro zetorren emakumea, baiña an zeukan bere di-

ru-poltsa aurreko mantalean bildu-bildu egiña; ez zegon uraxen galtzeko, alajaiña. Eta onela zion tratalari gizaajoak:

– Alfer-alferrik nere alegin guziak. Ez da mundu ontan diru ori kenduko dion idartsurik...

Nik orduan:

– Aizu emakume, zure gorde-bearra diru ori bezela gorde izan bazenu, ez zizun iñork-ere kenduko. Zoaz emendik matxarda-alen ori!

Ala, nere aalegin guziaz saiatu nintzan nere egitekoan, nere gobernaritzan. Alferrik izan zan guzia. Kanpotik etorritako etsai batzuek eraso zidaten eta ankapean zapaldua utzi ninduten. Ez zan malkorik gabe izan. Eta, azkenik, danak utzi ta nere leengora itzultzea erabaki nuan. Ala esan nion nere astoari, etxeko ukuillura joan-ta:

– Ator, ator nere kuttun ori! Emendik aldegin obe diagu-ta, gure leengo egunetako askatasunera. Gure leengo lasai-umilla obe diagu, gobernuko estu-larriak baiño...

Ontan ari naizela, nere biozkadak paperean jartzen ari naizela alegia, ondotik begi-zearka begira-begira jarri zait Don Kijote nere nagusia; nik idatziriko guzia irakurri du alajainkoa. Eta onela esan dit:

– Etsi-miñetan i beti, Santxo! Irekoi eta itzontzi! Baiña baiña...

Ortik aurrera Don Kijote'k esan dizkidanak, urrengo baterako utzi bearko noski. Agur lagun maiteok, Santxo-enea kaleko oiek batik-bat. Agur!